

EAEko Auzitegi Nagusiak LEP bat berriro eginaraziko du, euskara eskakizuna dela-eta

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 10/01/2025

Azken urteetan, euskararen aurkako hainbat sententziek 500 lanpostu publiko baino gehiago kolokan jarri dituzte.

EAEko Auzitegi Nagusiak Bizkaiko Foru Aldundiko 77 lanpostu bete edo egonkortzeko azterketa publikoa berriro egin beharko dela berretsi du, euskara eskakizuna “gehiagizkoa” dela eta ez duela “enplegu publikora baldintza beretan iristeko herritar guztien eskubidea” betetzen argudiatuta. 2021 eta 2022 artean bi LEP deitu zituen Aldundiak, administrazio postuak betetzeko. 227 postu ziren orotara, lehen eskaintzako 77ak (orain epaileak berrikusi dituenak) eta bigarren txandako 150ak. Bien aurkako salaketa jarri zuen lanpostu horietara aurkeztu zen norbanako batek, euskara eskakizunak “neurrigabeak” zirelakoan. Administrazioako lanpostuak betetzeko hizkuntza eskakizuna “gehiagizkoa” zela ebatzi zuen Bilboko epaitegi batek iaz, eta Foru Aldundiak helegitea aurkeztu zuen. Auzitegi nagusiak helegite hori ezeztatu du orain. Horrenbestez, aldaketarik ez bada, 77 lanpostu bete edo egonkortzeko azterketa errepikatu beharko da.

Euskalgintzaren Kontseiluak salatu du ez dela epai bakarra, oldarraldi judizial baten emaitza baizik: “Euskalgintzaren Kontseiluak bere kezka adierazi nahi du euskararen normalizazioaren aurkako oldarraldi judizial honek dagoeneko 500 lanpostu publiko baino gehiago jarri dituelako kolokan”. Gaurkoa bereziki larria iruditu zaie, ordea: “Hizkuntz Eskubideen Behatokiak bildutako salaketa ugariak adierazten duten bezala, herritar euskaldunen hizkuntza eskubideak ez daude bermatuta Bizkaiko Foru Aldundian. Horri konponbidea jartzera bideratutako deialdi hau bertan behera uzteak urraketak betikotzea lekarke ezinbestean”.

<https://eh.lahaine.org/eaeko-auzitegi-nagusiak-lep-bat>